

NORMALTASUNAREN GAIKOAK	EGUNA	HILABETEA	URTEA
	02	05	13
Gezur esaten digutela badakigu.			✓
Gezur esaten digute. Gezur esaten digutela badakigu.			
Gezur esaten diguten politiko eta enpresariak erabiltzen duten artaldearen ardi beltzak gara.			✓
Gezur esaten diguten medikuentzat akuri gogaikarriak.			
Gezur esaten digun industriarentzat kontsumitzen ez duten izorratutako makinak.			X
Gezur esaten diguten botika enpresentzako zapata barneko harria.			
Osasuna saldu nahi digutenek gezur esaten digute.			
Eskua patrikan dutela aurrerapenaz mintzo direnek gezur esaten digute.			
Baina ez ditugu euren gezur toxikoak sinesten.			X
Nahiz eta ikustezin egin nahi gaituzten, gaixotasun batean giltzaperatu, pozoindu eta ahoa itxiarazi, akatu eta gezurrezkoak diren loreak geure hilobian landatu, ez gaituzte giltzepean sartuko, ez gaituzte ixilduko, ez eta ikustezin egingo.			
Heuren linbo juridiko-sanitariotik irtengo gara.			
Ez dugu pazientziarik eta ez gara paziente onak, ez dugu geure burua justifikatu beharrik eta ez dugu azalpenik ematen. Fibromialgia pairatzen baduzu, Neke Kronikoaren Sindromearekin bizirauten baduzu, hiltorian bizi bazara Sentsibilitate Kimiko Anizkoitzarekin, gerran zaudela jakin behar duzu. Zure sufrimentuarentzat ez badute izenik aurkitzen, ez zaitez kezkatu. Gaixotasunak ez dira existitzen, gaixoak bakarrik daude. Saikapeak munizioa baina ez dira hasi berria den gerra honetan.			✓
Ez gara anormalak, normaltasunaz gaixotu direnak baizik. Euren normaltasunaz.			X
Ahokagaitz diren anomaliak gara, gizarte honetan enkaxatu nahi ez duten anomaliak. Horregatik guk diogu, anomalia garen neurrian, gizarte honen egi gordina.			
Orain da geure ordua: hitza hartu, erabaki eta definitu egiten baitugu.			
Bildurrik ez dugu ezagutzen.			X
KOTIZAZIO ENTITATEAREN AFILIAZIO ZENBAKIA	SINADURA		
0   8   1   2   6   0   4   3   7   8   2   1			